*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net • Web: www.zuia.con*

Murgian, bi mila eta hamaseiko urtarrilaren hogeita batean, arratsaldeko zazpiak direnean, aurretik legearen arabera deialdia eginda, Ohiko Bilkura egin da Udaletxeko Bilkura Aretoan. Behean zerrendatzen diren zinegotzi jaun-andreak bildu dira, Unai Gutiérrez Urkiza alkate jaunak zuzendu du bilkura eta Susana Zubiaur Zorrilla andreak Udalbatzako idazkari-lanak egin ditu.

**ALKATEA**
UNAI GUTIÉRREZ URKIZA JN. (EH Bildu)
**BERTARATU DIREN ZINEGOTZIAK**
INMA ELORZA BERGARA AND. (EH Bildu)
AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA JN. (EH Bildu)
GORKA IRIONDO GANTXEGI JN. (EH Bildu)
ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA AND. (EAJ-PNV)
CONCHI LÓPEZ LÓPEZ AND. (EAJ-PNV)
JUAN CARLOS ALONSO MORAZA JN. (ZBG-ZNU)
SUSANA MARTÍNEZ DE ARAMAYONA URIARTE AND. (ZBG-ZNU)
JOSE ANTONIO EGUILUZ ABECIA JN. (ZBG-ZNU)
LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ JN. (PP)
**BERTARATU EZ DEN ZINEGOTZIA**
MARTÍN GORROTXATEGI MENIKA JN. (EAJ-PNV)

Arratsaldeko zazpietan bilkura publikoa irekita, Lehendakaritzaren aginduz aurreikusitako gai-zerrenda landu, eta adierazten ditudan ondoko erabakiak hartu dira.

**1.- AURREKO OHIKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.**

En Murgia a veintiuno de enero de dos mil dieciséis, siendo las diecinueve horas, previa convocatoria cursada en forma legal, se celebró Sesión Ordinaria en el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial con la asistencia de l@s Señor@s Concejales que debajo se relacionan bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Unai Gutiérrez Urkiza, actuando de Secretario la de la Corporación, Dª Susana Zubiaur Zorrilla.

**ALCALDE**
DON UNAI GUTIÉRREZ URKIZA (EH Bildu)
**CONCEJALES ASISTENTES**
DOÑA INMA ELORZA BERGARA (EH Bildu)
DON AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA (EH Bildu)
DON GORKA IRIONDO GANTXEGI (EH Bildu)
DOÑA ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA (EAJ-PNV)
DOÑA CONCHI LÓPEZ LÓPEZ (EAJ-PNV)
DON JUAN CARLOS ALONSO MORAZA (ZBG-ZNU)
DOÑA SUSANA MARTÍNEZ DE ARAMAYONA URIARTE (ZBG-ZNU)
DON JOSE ANTONIO EGUILUZ ABECIA (ZBG-ZNU)
DON LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ (PP)

**CONCEJAL QUE NO ASISTE**
DON MARTÍN GORROTXATEGI MENIKA (EAJ-PNV)

Abierto el acto público a las diecinueve horas, por orden de la Presidencia se trató el Orden del día previsto, adoptándose los acuerdos que paso a reseñar.

**1.- LECTURA Y APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA ANTERIOR.**

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

Aurreko bileraren akta ikusirik, alkate jaunak esan du Galerak eta Eskaerak izeneko 13. puntuan, Altubeko autobus-geltokiaren gaia aipatu zuenean, hiruzpalau urterako izango zela esan zuela, baten batek luzeagorako izango zela jakinarazi zuela.

Udalbatzak akta azaldutako zuzenketekin onartzea erabaki du.

**2.- ALKATETZAREN DEKRETUAK.**

Alkatetzak 2015eko abenduaren 16ko 481. zk.ko dekretutik abenduaren 30eko 521.era arte eman dituen xedapenen berri eman eta ondoko gai hauei buruzkoak dira: Lan, zerbitzu, zuzkidura, diru-laguntza, udal-langileen abenduko aparteko ordainsariari, udal-langileen abenduko soldatei, diru-laguntzei eta okerreko diru-sarrerei dagozkien 22., 23. eta 24. zk.ko ordainketa-aginduak onartzea (194.757,98 €, 21.934,70 € eta 459.461,42€, hurrenez hurren). Titular bati OHZn hobaria ukatzea, beste udalerri batean beste higiezin baten titular izatagatik. Ohiko etxebizitzaren OHZn hobaria ematea udalerriko bizilagunei, arrazoi subjektiboengatik eta errentaren arabera. Zertzitzuetako langileei atzerapenak ordaintzea, Udalbatzak 2015. urterako adostutako soldata-igoeragatik (1.314€/u). Diru-laguntzak ematea: udalerriko Administrazio Batzarrei %95eko diru-laguntza ematea 2015ean argiteria publikorako egindako gasturako: guztira 60.764,44 €; Administrazio Batzarrei elurra kentzeko: Murgiakoari 605 €, Aperregikoari 166,38 €, Bitorianokoari 337,50 €, Markinakoari 756,25 €, Domaikiakoari 450 €, Jugokoari 60,50 €, Zaratekoari 431,25 €; Administrazio Batzarrei 2015eko herriko jaietarako: Ametzaga Zuiakoari 1.262,60 €, Lukianokoari 2.397,50 €, Murgiakoari 4.288,52 €, Sarriakoari Gabonetako

Vista el acta de la sesión anterior, por el Sr. Alcalde se pone de manifiesto que en el punto 13. Ruegos y Preguntas, cuando comentó el tema de la parada del autobús de Altube, al comentar que la misma además sería para unos 3 o 4 años, alguien informó que más.

La Corporación acuerda aprobar el acta con la puntualización expuesta.

**2.- DECRETOS DE ALCALDÍA.**

Se da cuenta de las resoluciones dictada por la Alcaldía desde el Decreto Nº 481 de 16 de diciembre al Nº 521 de 30 de diciembre de 2015, referentes a la aprobación de relaciones de mandamientos de pagos por obras, servicios, suministros, paga extraordinaria de diciembre del personal del Ayuntamiento, nóminas del personal del mes de diciembre, subvenciones e ingresos indebidos Nº 22, 23 y 24 por importes de 194.757,98, 21.934,70€ y 459.461,42€ respectivamente, denegación de bonificación a un titular del IBI por ser titular de parte de otro inmueble en otro municipio, concesión de bonificaciones en el IBI a vecin@s del municipio en la vivienda habitual por razones subjetivas en función de la renta, abono a los Operarios de servicios de los atrasos en concepto del incremento retributivo acordado por la Corporación para el año 2015 (1.314€/u), concesión de subvención del 95% a las JJAA del municipio para del gasto realizado en concepto de alumbrado público 2015 por importe total de 60.764,44€, concesión de subvención para la retirada de la nieve a las Juntas Administrativa de Murgia: 605€, Aperregi: 166,38€, Bitoriano:337,50€, Markina: 756,25€, Domaikia: 450€, Jugo: 60,50, Zárate: 431,25€, para fiestas patronales 2015 a las Juntas de Ametzaga Zuia: 1.262,60€, Lukiano: 2.397,50€, Murgia: 4.288,52€, Sarría para el Cortejo

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

segiziorako 1.200 €; herriko argiteria publikoaren koadro elektrikoak prest jartzeko diru-laguntza honako Administrazio Batzarrei: Bitorianokoari 1.539,79 € eta Zaratekoari 431,25 €; diru-laguntzak Ametzaga Zuiako Batzarrari saneamendu-sarea zati batez berritzeko lanetarako: 11.371,32 €; Aperregikoari herriko Maisuen Etxeko leihoak aldatzeko; Sarriako Batzarrari San Lorenzo Elizako sakristiako leihoak aldatzeko: 232,56€ eta kaleetako plakak jartzeko: 2.614,21€; Zarateko Batzarrari La Calzada kalean zolatzeko eta euri-urak biltzeko lanetarako: 4.220,75 €. Ametzaga Zuiako eta Zarateko Administrazio Batzarrei diru-laguntzak ukatzea: lehenengoari ikuztegiaren inguruak egokitzeko 2. faseko lanetarako, AFAren %100eko diru-laguntza jaso dutelako, eta bigarrenari, argiteria publikoko kable bat konpontzeko, Udalak egiten dutelako mantentze-zerbitzu hori Batzarretan. Musika Eskolako azaro eta abenduko Tasen (2.143,35 € eta 2.143,35 €, hurrenez hurren) eta Ordutegi luzatuko zerbitzuaren Tasen (1.285,99 €) erroldak onartzea. Oroko Andre Mariaren Ikastetxe publikoko IGEri diru-laguntza ematea, hau da, 2 urteko gelarako indartze-zerbitzuaren irailetik abendura arteko kontuaren %50 (2.084,88 €). Obra txikien esleipena: Hidrocontrol SLri KZU programatu eta kudeatzeko zerbitzuak eta kloratze-instalazioen mantentzea, aurreikusitako urteko kostua 8.435,40 € eta 3.761,04 € gehi BEZ izanik, hurrenez hurren. Markinako Aldai kalearen inguruan 6 txakur abandonaturik aurkitzea salatu izanaren espedientea abiarazi eta ustezko jabeari entzute-saiora deitzea. Bigilianoko eustormaren lanen 23.530,18 €ko 2. ziurtapena onartzea. Lan-taldeko 2. administrari laguntzailearen lanpostu betetzen zuenak bitarteko funtzionario izateari aurkeztutako ukoa onartzea, ondorioak 2015.12.31tik izanik. Fidantzak kitatzea: Murgiako Batzarrak megafoniako ekipoa herriko jaietan erabiltzeko berme

Navideño: 1.200€, subvención para la puesta a punto de los cuadros eléctricos del alumbrado público de las respectivas localidades a las Juntas de Bitoriano: 1.539,79€ y Zárate: 431,25€, subvenciones a la Junta de Ametzaga Zuia para las obras de renovación parcial de la red de saneamiento: 11.371,32€, Junta de Aperregi para sustituir las ventanas de la Casa de los Maestros de la localidad, Junta de Sarría para las obras de sustitución de ventanas de la sacristía de la Iglesia de S. Lorenzo: 232,56€ y para el suministro de placas de calles: 2.614,21€, Junta de Zárate para obras de pavimentación y recogida de pluviales en la C/La Calzada: 4.220,75€, denegación de subvenciones a las Juntas Administrativas de Ametzaga Zuia para las obras de la 2ª fase del acondicionamiento del entorno del lavadero al estar subvencionadas al 100% por DFA y Zárate para reparar un cable del alumbrado público porque el mantenimiento del citado servicio en las Juntas ya lo realiza el Ayuntamiento, aprobación de los padrones de las Tasas de la Escuela de música de los meses de noviembre y diciembre por importes de 2.143,35€ y 2.143,35€ respectivamente, padrón de las Tasas del Servicio de horario ampliado de diciembre por importe de 1.285,99€, concesión de subvención a la AMPA del Colegio Público Virgen de Oro equivalente al 50% del coste del servicio de refuerzo para aula de 2 años meses septiembre a diciembre: 2.084,88€, adjudicación de contratos menores a Hidrocontrol S.L. servicios de programa y gestión de la UCV y mantenimiento de instalaciones de cloración por un coste anual estimado de 8.435,40€ y 3.761,04€ más IVA respectivamente, inicio de expediente para declarar abandonados 6 perros denunciado en la zona de la C/Alday de Markina y audiencia al presunto poseedor, aprobación de la 2ª Certificación de las obras del muro de contención de Biguillano por importe de 23.530,18€, aceptación de la renuncia presentada por

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

gisa utzitakoa eta URBABIL 2000 SL enpresak Udaletxe plazako jolas-eremuko zoladuraren berme gisa utzitakoa (1.136,09 €). Ebazpena Zuiako Koadrilari jakinarazteko udala interesa duela 2016an Euskara Teknikariaren zerbitzuarekin jarraitzeko. AVASAk aurkeztutako berraztertze-errekurtsoa onartzea eta gatz-pabilioi berri eraiki eta ordainleku inguruko plataforma handitzeko lanen EIOZ gisa gauzatutako likidazioa baliogabetzen da, interes publiko nabarmeneko lanak izateagatik. Errekerimendua eraso bat egindako txakur baten jabeari 14 egunez behatzeko, eta horren ondoren emaitzaren dagokion ziurtagiri/txostena aurkeztu beharko du. Obra-baimenak ematea: Murgiako 6. poligonoko 5. lursailean dagoen eraikineko estalkia eta kanpo-arotzeria aldatzeko; Lukianoko 174-A/1 lursailean dagoen etxebizitzan sukaldea berritzeko; Ametzaga Zuiako 100/1 lursailean dagoen etxebizitzarako sarbide-arrapalaren zoladura eta teilatua konpontzeko; Aperregiko Administrazio Batzarrari, herriko Maisuen Etxeko leihoak aldatzeko. Herritar bati arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak izateko baimena ematea. 787/1 eta 250/2 lursailen titularrari horietan gehienez ere 4 behor edukitzeko baimena ematea. ACNURi errefuxiatuentzako 12.000 €ko diru-laguntza ematea.

Lopez zinegotzi andreak 485.ari buruz galdetu du, hau da, Zerbitzuetako langileen ordainsariaren ordainketaren inguruan, batena ala birena den, eta

quien desempeñaba la plaza de Auxiliar administrativa Nº 2 de la plantilla como funcionaria interina con efectos 31.12.2015, cancelación de fianza depositada como garantía del adecuado del equipo de megafonía cedido para utilizar por parte de la Junta de Murgia en fiestas, de la fianza depositada por URBABIL 2000 S.L. como garantía del pavimento de seguridad de la zona de juegos de la Plaza del Ayuntamiento por importe de 1.136,09€, resolución por la que se comunica a la Cuadrilla de Zuia el interés del Ayuntamiento en continuar con el servicio del Técnico de Euskera para 2.016, estimación del recurso de reposición interpuesto por AVASA y se anula la liquidación practicada en concepto de ICIO por las obras de construcción de nuevo pabellón de sal y ampliación de plataforma del área de peaje al considerarse obras demarcado interés público, requerimiento a propietaria de perro causante de agresión para someter en observación al mismo durante 14 días tras lo cual habrá de presentar el correspondiente certificado/informe del resultado, concesión de licencias de obras para sustituir la cubierta y carpintería exterior del edificio situado en la parcela 5 polígono 6 de Murgia, para reformar cocina en vivienda situada en la parcela 174-A/1 de Lukiano, para reparar el pavimento de la rampa de acceso a la vivienda de la parcela 100/1 de Ametzaga Zuia y reparar el tejado, a la Junta Administrativa de Aperregi para sustituir las ventanas de la Casa de los Maestros de la localidad, concesión de licencia a vecina para tenencia de perros potencialmente peligrosos y autorización al titular de las parcelas 787/1 y 250/2 para tener un máximo de 4 yeguas en las mismas, concesión de subvención por importe de 12.000€ a ACNUR para refugiados.

La Concejal Sra. López pregunta sobre el Nº 485 referente al abono

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

alkateak erantzun dio bakoitzaren urteko zenbatekoa dela, orain arte ordaindu gabe zegoena.

Eguiluz zinegotzi jaunak Bola-joko Elkartearen gastuei buruz galdetu eta alkateak jakinarazi dio Udalak askarietarako produktuen gastuak bere gain hartzen dituela.

Udalbatzak horren guztiaren berri izan duela adierazi du.

**3.- POSTA OFIZIALA.**

**3.1.- Arabako Foru Aldundia:**

- Gizarte Ongizateko Foru Erakundeak jakinarazi du 4.342,88 €ko laguntza eman duela EALZ mantentzeko gastuetarako, hau da, sabaia konpondu eta leihoak aldatu eta konpontzeko.

- Mendi Zerbitzuak, Iberdrola Distribución eléctrica SAU-ren izeneko egur hil eta pirritatuen aprobetxamenduaren baimena bidali du.

- Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen Sailak honako hauek jakinarazi ditu: azaroko derrigorrezko diru-bilketaren ordainketa, Udalaren eta Ametzaga Zuiako Batzarraren izenean dauden katastro-lursailen baja, hurrenez hurren, bideetarako erabiliko direlako; eta 2016ko zerga-egutegia bidali du.

- Garraio Sailak Aiarako bidaiarien ohiko garraioaren emakidaren ordutegiak aldatu direla jakinarazi du.

**3.2.- Eusko Jaurlaritza:**

- Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak: Zuia-Urkabustaiz bidearen proiekturako diru-laguntza aldatu eta, hasiera batean aurreikusitakoa baino gastu txikiagoa justifikatzeagatik, 5.771,20 €ra jaitsi eta ordaintzeko geratzen den zenbatekoa ordaintzeko agintzen duen ebazpena bidali du.

- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu

retributivo de los Operarios si es de uno o de ambos, contestándole el Alcalde que es la cuantía anual de cada uno que no se les había abonado.

El Concejal Sr. Eguiluz pregunta sobre los gastos correspondientes a la Asociación de bolos, informándole el Alcalde que el Ayuntamiento asume los gastos de los productos para las meriendas.

La Corporación se da por enterada.

**3.- CORRESPONDENCIA OFICIAL.**

**3.1.- Diputación Foral de Álava:**

- Instituto Foral de Bienestar Social comunica la concesión de una subvención de 4.342,88€ para los gastos de conservación del CRAD para reparación de techo y sustitución y reparación de ventanas.

- Servicio de Montes remite autorización de aprovechamiento de leñas muertas y rodadas a nombre de Iberdrola Distribución eléctrica S.A.U.

- Hacienda, Finanzas y Presupuestos comunica el pago de la recaudación ejecutiva del mes de noviembre, la baja de parcelas catastrales a nombre del Ayuntamiento y Junta de Ametzaga Zuia respectivamente por su destino como viales y remite el calendario fiscal de 2016.

- Transportes comunica los cambios en los horarios de la concesión de transporte regular de viajeros de Ayala. .

**3.2.- Gobierno Vasco:**

- Desarrollo Económico y Competitividad remite resolución que modifica la concesión de subvención para el proyecto del camino de Zuia-Urkabustaiz y la rebaja a 5.771,20€ por menor gasto justificado que el inicialmente previsto y ordena el pago de la cantidad pendiente de 2.715,86€.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

Sailak Oroko Andre Mariaren Ikastetxeko lanetarako eta Turismo Bulegoa egokitzeko diru-laguntzak gastuak egiaztatu ondoren ordaindu dituela jakinarazi du, horien zenbatekoak 3.327,41 € eta 15.793,61 € izanik, hurrenez hurren.

- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak langileen prestakuntzarako ikastaroen diru-laguntzak gure alde ordaindu izanaren jakinarazpena bidali du.
- Osalanek arbelen mantentzeari buruzko jarraibideak jasotzen dituen agiria bidali du.
- Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak jakinarazi du Hirigintza eta eraikuntzako udal-ordenantzei buruzko oinarrizko eredua prestatzen ari direla.
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, euskara erabiltzera gonbidatzen duen ikur berriari buruzko informazioa bidali du, hedatua izan dadin.
- Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak euskara sustatzeko Ekintza Planaren berrargitalpena bidali du.

**3.3- EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartea:**

- 2016.01.26an araubide juridikoren eta administrazio prozeduraren erreformak toki-administrazioan izango duen eraginari buruzko jardunaldia egingo dela jakinarazi du.

**4.- 2016KO AURREKONTUAREN ETA AURREKONTU PLANTILLAREN PROPOSAMENA.**

Alkate-udalburu jaunak, Informazio Batzordean azaldutakoa errepikatuz, 2016. urterako aurrekontu, aurrekontu-plantilla eta LPZren proposamenaren berri eman eta hasiera batean aurkeztutako proposamenarekin alderatuz sartutako aldaketak jakinarazi ditu: Abeltzaintza Azokarako aurreikusitako gastuaren areagotzea, Gorbeiako parkekoa ere egingo dela, eta sarreren egoeran Parkearen azken

- Hacienda, Finanzas y Presupuestos comunica el pago de las subvenciones para las obras en el Colegio Virgen de Oro y el acondicionamiento de la Oficina de turismo una vez justificados los gastos por importes de 3.327,41€ y 15.793,61€ respectivamente.

- Instituto Vasco de Administración Pública remite notificación de pago a nuestro favor de la subvención de los cursos de formación de los trabajadores.
- Osalan remite documento con instrucciones sobre el mantenimiento de pizarras.
- Medio Ambiente y Política Territorial informan de la elaboración de un modelo básico de Ordenanzas municipales de urbanización y edificación.
- Educación, Política Lingüística y Cultura remiten información sobre el nuevo símbolo de invitación al uso del euskera para su difusión.
- Viceconsejería de Política Lingüística remite reedición del Plan de Acción para la promoción del euskera.

**3.3- Asociación de Municipios Vascos-EUDEL:**

- Informa de la celebración de la jornada sobre la incidencia de la Reforma del régimen jurídico y del Procedimiento administrativo en la Administración local el día 26.01.2016.

**4.- PROPUESTA DE PRESUPUESTOS 2016 Y PLANTILLA PRESUPUESTARIA.**

El Sr. Alcalde-Presidente, reiterando lo expuesto en la Comisión informativa da cuenta de la propuesta de presupuesto, plantilla presupuestaria y RPT para el año 2016 y comenta las modificaciones introducidas respecto a la propuesta inicialmente presentada: incremento del gasto previsto para la Feria ganadera teniendo en cuenta que también se celebrará la del parque del Gorbeia y en el estado de

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

horretarako diru-laguntza aurreikustea; biomasako eta energia aurrezteko galdaren proiekturako Eusko Jaurlaritzatik jasoko zela aurreikusitako diru-laguntza 102.507,49 €tan murriztea, bakarrik, 2016rako aurreikusitako inbertsioei dagokiena barne hartuta (Bea-Murgia eta Oregi etxeetako berokuntza), emaitzazko aldea baso-aprobetxamenduen partidaren kargura areagotuz; zerbitzuetako kontratuen kostua 2015. urterakora eta kirol-instalazioena esleipen berriaren preziora; bulego berrietarako ekipo informatikoa zuzkitzeko partida bat barne hartzea; taldeek eskatu legez, ikasleen garraiorako diru-laguntza handitzea; SAREkiko hitzarmenerako eta nekazaritza ekologikoko proiekturako diru-laguntza izendunak aurreikusi dira, Gaztedi Zuiatarra Elkarteak eta Infozuiak kultura-taldeentzako diru-laguntzen deialdian esku hartuko dutela aurreikusiz.

Aldaketa hauekin, 3.429.490,30 eurokoa da aurrekontua gastuen zein sarreren egoeran.

Ondoren, proiektu horren aurkako zuzenketarik aurkeztu ez dela eta taldeek proposatutako partidak jasotzea saiatu direla azaldu du; erraztatzeko makinaren zuzkiduraren inguruan esan du erosteko momentua heltzen denean erabakiko dela egokiena: erostea ala renting egitea. Jarraian, taldeei hitz egiteko txanda eman die:

EAJ/PNV Taldea: honako hau azaldu du Ircio zinegotzi andreak:

*“2016rako aurrekontu berri hau onartzearen aldeko gure jarrera legegintzaldi berri honetan egiten ari den lankidetza-lanaren erantzuna da. Jaso egin*

ingresos la previsión de la subvención del Parque para esta última, reducción de la subvención que se había previsto de G.V. para el proyecto de calderas de biomasa y ahorro energético en 102.507,49€ incluyéndose sólo lo que corresponde a las inversiones previstas para el 2016 (calefacción de las Casas Bea-Murgia y Oregi), incrementándose la diferencia resultante con cargo a la partida de los aprovechamientos forestales, ajuste del coste de los contratos de servicios a lo ejecutado el año 2015 y el de instalaciones deportivas al precio de la nueva adjudicación, inclusión de una partida de suministro de equipos informáticos para las nuevas oficinas, incremento de la subvención destinada al transporte de estudiantes tal y como se había solicitado por parte de los grupos, se han previsto subvenciones nominativas para Convenio con SARE y para proyecto de agricultura ecológica, previéndose que la Asociación Gaztedi Zuiatarra e Infozuia participen en la convocatoria de subvenciones para los grupos culturales.

Con estas modificaciones el presupuesto tanto en su estado de gastos como de ingresos asciende a 3.429.490,30 euros.

A continuación expone que no se han presentado enmiendas a dicho proyecto, que se ha intentado incluir las partidas propuestas por los grupos; respecto al suministro de la barredora manifiesta que llegado el momento de la adquisición se valorará lo más adecuado: la compra o la realización de un renting. A continuación concede el turno de intervención a los grupos:

Grupo EAJ/PNV: la Concejal Sra. Ircio expone lo siguiente

*“Nuestro apoyo afirmativo en la aprobación de este nuevo presupuesto para 2016 surge como respuesta al trabajo*

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

*dira EAJ/PNVk planteatutako proposamen batzuk eta beste batzuk, berriz, mahai-gainean utzi dira aurrerago aztertu eta baloratzeko, beraz, ekitaldi honetan gauzatuko direlakoan gaude. Domingo Sautu kalea foru-planeko laguntza-programaren barruan kanalizatzeko eskatutako partida aurrekontuan jasotzea nahi genuen. Espero dezagun ekitaldi honetan zehar onartutako aurrekontuan jaso ahal izatea. Osterantzean, gure EAJ/PNV udal-taldeak lankidetza-ildo ireki honetan aurrera egiten jarraitzeko lanean, adosten eta ideiak ekartzen jarraituko du.*

*colaborativo que se está llevando esta nueva legislatura. Algunas de las propuestas planteadas por EAJ/PNV se han visto recogidas y otras se han dejado sobre la mesa para su posterior estudio y valoración, por lo que esperamos que a lo largo de este ejercicio se puedan materializar. Nos hubiera gustado ver recogida en este presupuesto la partida que se ha solicitado para la canalización de la calle Domingo Sautu dentro del programa de ayudas del plan foral. Esperamos que pueda ser incluida a lo largo de este ejercicio en el presupuesto ya aprobado. Por lo demás, nuestro grupo municipal EAJ/PNV seguirá trabajando, consensuando y aportando ideas para seguir avanzando en esta línea de cooperación abierta*".

ZBG/ZNU taldea: Alonso zinegotzi jaunak esan du eurak ere ados daudela aurkeztutako proiektuarekin.

Grupo ZBG/ZNU: el Concejal Sr. Alonso dice que también está de acuerdo con el proyecto que se presenta.

PP taldea: Sautu zinegotzi jaunak esan du ez dagoela ados bi partidarekin: giza eskubideen aldeko SARE plataformaren eta nekazaritza ekologikoko proiektuaren diru-laguntza izendunekin, ez dituelako argi ikusten.

Grupo PP: el Concejal Sr. Sautu dice que no está de acuerdo con dos partidas: las de las subvenciones nominativas con la plataforma por los derechos humanos SARE y con la del Proyecto de agricultura ecológica, porque no lo ve claro.

Azkenean proposamena bozkatu da eta

Finalmente se somete la propuesta a votación y

Udalbatzak, gehiengo osoz, hots, Sautu zinegotzi jauna ez diren gainerako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, lehenengo hori abstenitu baita ez dituelako arestian azaldutako bi partidak argi ikusten, honako hau ERABAKI DU:

La Corporación por mayoría absoluta, con el voto favorable de todos l@s Concejales excepto del Concejal Sr. Sautu que se abstiene porque no ve claras las dos partidas anteriormente expuestas, ACUERDA

LEHENENGOA.- Udalaren 2016ko ekitaldirako Aurrekontua, Aurrekontu-plantilla eta Lanpostuen Zerrenda, ondoren zehazten den laburpenaren arabera, eta Aurrekontua gauzatzeko udal Araua onartzea.

PRIMERO.- Aprobar el Presupuesto, la Plantilla presupuestaria y la RPT del Ayuntamiento para el ejercicio 2016 conforme al resumen que a continuación se detalla, junto con la Norma Municipal de Ejecución presupuestaria,

BIGARRENA.- Espedientea

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net • Web: www.zuia.con*

hamabost egunez jendaurrean jartzea, alegazioak aurkezteko.

HIRUGARRENA.- Erreklamaziorik egon ezean espedientea behin betiko onartuta dagoela ulertzea eta, egotekotan, beste erabaki bat hartzea.

LAUGARRENA.- Behin betiko erabakia arauzko modu eta epean argitaratzea.-

BOSGARRENA.- Unai Gutierrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordez ari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko behar diren agiri guztiak egin ditzan udalaren izenean eta ordezkaritzan.

AURREKONTUA

SEGUNDO.- Exponer el expediente al público por el plazo de quince días a efecto de alegaciones.

TERCERO.- Considerar aprobado el expediente definitivamente si no hubiera reclamaciones y si las hubiera adoptar nuevo acuerdo al respecto.

CUARTO.- Publicar el acuerdo definitivo en la forma y plazo reglamentario.

QUINTO.- Facultar al Sr. Alcalde-Presidente D. Unai Gutiérrez Urkiza o a quien legalmente le sustituya para que en nombre y representación del Ayuntamiento formalice cuantos documentos sean precisos en ejecución de este acuerdo.

PRESUPUESTO

| SARRERAK | Euro |
|---|---|
| 1.- Zerga zuzenak | 1.047.284,93 |
| 2.- Zeharkako zergak | 40.000,00 |
| 3.- Tasak eta bestelako sarrerak | 375.211,96 |
| 4.- Transferentzia arruntak | 1.326.951,00 |
| 5.- Ondare-sarrerak | 442.549,90 |
| 6.- Egiazko inbertsioak besterentzea | 160.000,00 |
| 7.- Kapitalaren transferentziak | 37.492,51 |
| GUZTIRA | 3.429.490,30 |

| GASTUAK | Euro |
|---|---|
| 1.- Langile-gastuak | 454.818,36 |
| 2.- Ondasun arrunten erosketa eta Gizarte Segurantza1. | 611.461,69 |
| 4.- Transferentzia arruntak | 493.113,93 |
| 6.- Egiazko inbertsioak | 624.096,32 |
| 7.- Kapitalaren transferentziak | 246.000,00 |
| GUZTIRA | 3.429.490,30 |

| INGRESOS | Euros |
|---|---|
| 1.- Impuestos directos | 1.047.284,93 |
| 2.- Impuestos indirectos | 40.000,00 |
| 3.- Tasas y otros ingresos | 375.211,96 |
| 4.- Transferencias corrientes | 1.326.951,00 |
| 5.- Ingresos patrimoniales | 442.549,90 |
| 6- Enajenación inversiones reales | 160.000,00 |

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

7.- Transferencias de capital .................................................. 37.492,51
TOTAL.................................................... 3.429.490,30

| GASTOS | Euros |
|---|---|
| 1.- Gastos de personal | 454.818,36 |
| 2.- Compras bienes corrientes y ss | 1.611.461,69 |
| 4.- Transferencias corrientes | 493.113,93 |
| 6.- Inversiones reales | 624.096,32 |
| 7.- Transferencias de capital | 246.000,00 |
| TOTAL | 3.429.490,30 |

AURREKONTU PLANTILLA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA

1.- FUNTZIONARIOAK

1.1.- Gaikuntza nazionalekoak:

A) Eskala: Idazkaritza-kontuhartzailetza: kop.: 1; taldea: A1; titulazioa: Zuzenbideko, Politika eta Administrazio Zientzietako, Soziologiako, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako, Ekonomiako, edo Aktuariotza eta Finantza Zientzietako lizentziaduna; hizkuntza eskakizuna: 4, derrigortasun datarik gabe; egoera: aktiboan; betetzeko era: lehiaketa; lantokia: udaletxea; dedikazioa: osoa; destino-osagarria: 26; berariazko osagarria: 23.670,36.

1.2.- Korporaziokoak:

A.- Administrazio Orokorra:

- Administrari laguntzailea: kop.: 2; taldea: C2; titulazioa: Eskola Gradua, 1. mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea; hizkuntza eskakizuna: 2; derrigortasun data: 1994ko abenduaren 13a, 1. plazaren kasuan, eta 2000ko apirilaren 14a, 2. plazaren kasuan; egoera: 1. plaza aktiboan ea 2. plaza hutsik; betetzeko era: oposizio-lehiaketa; destinoa: 1. plazarena, udaletxea, eta 2. plazarena, udaletxea; dedikazioa: osoa; destino-osagarriak: 1. plaza: 19; 2. plaza: 17: berariazko osagarriak: 1. plaza: 12.898,90; 2. plaza: 8.452,22; Produktibitatearen osagarria: 1. plaza:

PLANTILLA PRESUPUESTARIA Y RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO

1.- FUNCIONARIOS

1.1.- De habilitación estatal:

